

## 1. ATALA

Zangalatraba eseririk zegoen mutila Zam-Zammah kanoian. Zam-Zammah, sua darion herensugearen nagusi dena, Punjaben nagusi da.

*Está cansado.* NEKATUTA DAGO  
*Estamos vivos.* BIZIRIK GAUDE  
*Está sentado.* JARRITA DAGO  
*Dominar, ser dueño* NAGUSITU

Bazuen Kimek arrazoirik, ingelesak baitziren Punjabeko nagusi, eta ingelesa zen Kim. Nahiz eta bertakoak bezain belztua egon, zuria zen Kim: behartsuenen arteko behartsu zuria. Zaintzen zuen odol nahasiko emakumeak Kimen amaren ahizpa zela esan zien misiolariei; baina Kimen ama haur-zaina izana zen koronel baten familian eta Kimball O'Hararekin ezkondu zen, Maverick irlandar errejimenduko sarjentu gaztea.

*Lo haremos entre los dos.* ELKARREN ARTEAN EGINGO DUGU  
*Tiempo revuelto.* EGURALDI NAHASIA  
*La hermana de su madre.* HAREN AMAREN AHIZPA

Soldaduak lana topatu zuen gero Sind, Punjab eta Delhiko burdinbidean, eta hura gabe itzuli zen errejimendua Ingalaterrara. Emaztea kolerez hil zen Ferozeporen; edateari ekin zion O'Harak.

*Dedicarse, atacar, decir.* EKIN

Erruki-talde eta kaperauak saiatu ziren umea eskuratzen, baina O'Harak ihes egiten zien, opioa hartzen zuen emakumearekin topo egin zuen arte; zuriak Indian hiltzen diren bezala hil zen O'Hara.

*Grupo de personas compasivas.* ERRUKI TALDE  
*Capellán.* KAPERAU  
*Tomar opio.* OPIOA HARTU

Hiru paperek osatzen zuten haren ondarea: bati «ne varietur» deitzen zion, hitz horiexek baitzeuden idatzita bere sinaduraren azpian, eta besteari bere «askatasun agiria». Hirugarrena Kimen jaiotzeziurtagiria zen. Gauza haiek, esan ohi zuen opioa hartutako zorioneko orduetan, gizon bihurtuko zuten Kimball txikia.

*Los que formaban la reunión.* BILERA OSATZEN ZUTENAK  
*Convertir el agua en vino.* URA ARDO BIHURTU

Egunen batean ondo irtengo zuen denak, hala zioen O'Harak, eta edertasun eta indarrezko zutabe artean miretsiko zuten Kim, zutabe ikaragarrietan. Koronelak berak, zaldi baten gainean, eta munduko errejimendurik onenaren buruan, zerbitzatuko lioke Kimi. Lehen mailako bederatzehun deabruk, zeinen Jainkoa zezen gorri bat zelai berde batean baitzen, zerbitzatuko zioten Kimi.

*Algún día todos le admirarán. EGUNEN BATEAN DENEK MIRA EGINGO DIOTE*  
*Kim sería admirado MIRETSIKO ZUTEN KIM*  
*Serviría a Kim ZERBITZATUKO LIOKE KIMI*  
*Servirían a Kim ZERBITZATUKO ZIOTEN KIMI*